

1. Batz s. coop*

Batz Sozietate Kooperatiboa, Igorren, Bizkai-ko Arratiako eskualdean, kokatuta dago.

1963an sortu zen Batz. Hainbat produktu egiten genituen garai hartan. Handik urte batzuetara, automozio-sektoerako trokelak egiten espezializatu ginen. Horixe izan genuen negozio-iturri nagusia enpresaren lehenbiziko 20 urteetan.

1982an, beste lan bati ekin genion: automobil-industriarako sistemak eta estanzio-piezak egiteari. Hogei urteren buruan, Trokelgintza sailak adinako garrantzia hartu du langintza berriak.

Bi negozio-unitate ditu Batzek: Trokelgintza eta Automozio Sistemak. Elkarren osagarri dira bi jarduerok, helburu bakar batekin: automobilgileen beharrak asetzeari.

Independenteak dira bi negozio-unitateok, zenbait zerbitzu partekatuak badituzte ere.

Langileei dagokienez, guztira 550 langile inguru daude Batzen. Horietatik 320 Trokelgintzakoak eta 230 Sistemetakoak. Kooperatiba izanik, bazkideak dira gehienak.

* Egilea: Amaia Zarrabeitia (Elhuyar Aholkularitzako euskara-teknikaria) eta Karmelo Uriarte (Hobekuntza-arduraduna; Batz, S.Coop.).

AURREKARIAK

Batz Kooperatibak 40 urteko ibilbidea beteta dauka eta hainbeste urtetan gorabehera asko izan dira. Hasierako urteetan Arratialeko lagunez osatuta zegoen plantilla eta beraien harremanak euskaraz izaten ziren. Enpresa handituz joan zen eta apurka-apurka Bilbo eta inguruetakoko jendea hasi zen sartzen eta eurekin enpresako harremanak, hizkuntzari dagokionez, aldatu egin ziren eta euskaraz izan beharrean gaztelaniaz ziren.

Aurretik kezka bazegoen, baina 2000. urtean langile-talde batek aurkeztu zuen proposamena Zuzendaritzan. Pauso hori emateko inguruko enpresetako erreferentziak garrantzitsuak izan ziren. Kasu honetan Maier S. Koop. izan zen erreferentzia. Maierrek Euskara Plana martxan jarri zuela ikusita, Batz-ek ere beste hainbeste egin behar zuela pentsatu genuen.

Proiektua landu eta martxan jartzeko Elhuyar Aholkularitzari eskatu genion laguntza teknikoa eta beraiekin batera abiatu zen Euskara Plana.

Plana abiatzerako unean daturik aipagarrienak hauek ziren: langileei zegokionez, une hartan 379 langile zeuden Batzen eta horietatik euskaldunak %72.

Bestelako elementuei zegokionez, adibidez, hizkuntz paisaia (ohar-taula, errotulazioa, argibideak, etab.) gehiena gaztelaniaz zegoen; dokumentazioari zegokionez, nomina eta lan-orria ele bietan zeuden, baina gainerako dokumentazio guztia gaztelaniaz. Giza Baliabideen arloan, adibidez, kontratazioan euskara jakiteak %20ko pisua zeukan.

Datu horiekin ondorioztatzen dena da, gehiengo euskalduna izan arren, laneko eguneroko harreman formaletan gaztelania zela nagusi.

BATZ s.coop.eko PROIEKTUA

Batz-eko Euskara Plana bere ezaugarri eta premietara egokitutako prozesu planifikatua izan da.

Batez ere barrura begirako proiektua izan da eta barne-harremanak landu ditugu. Bezero guztiak atzerritarrak izanik, kanpo-harremanak hornitzaile, finantza-erakunde eta erakunde publikoetara mugatu ditugu.

Pertsonen arteko komunikazioa euskaraz izatea lortu nahi zen. Hori horrela izanik, euskararen presentzia eta erabilera areagotzea eta enpresa euskararen gestioaz jabetzea izan da helburu nagusia.

PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Euskara Planak hiru etapa izan zituen:

Aurreproiektua edo diagnostikoa

2000ko otsailean hasi zen Elhuyar proiektuaren lehenengo fase honekin. Fase horren lehenengo helburua diagnostikoa osatzea izan zen. Diagnostiko honetan, alde batetik, Batz-eko ezaugarri orokorrak eta Batz-en une hartan euskararen egoera zein zen jaso ziren. Beste alde batetik, eta egindako diagnostikoa oinarrituta, aurrerago aipatutako helburuak betetzeko helburuak zeintzuk izan beharko ziratekeen proposatzen zen.

Kooperatibak bere izenean plana koordinatutako zuen pertsona izendatu zuen, eta Elhuyar Aholkularitzak eskatuta, berak egindako lanak kontrastatzeko, kontrasterako lantaldea ere sortu zen. Lantalde honek eta koordinatzaileak aurreproiektua ontzat eman ondoren, Zuzendaritzan aurkeztu eta honek ere onespina eman zion.

Abiatzea

Aurreproiektua onartu ondoren, 2000ko irailean ondorengo urratsak egin genituen:

- Euskara Batzordea sortu. Euskara Batzordea gune eta estamentu estrategikoetako jendearekin osatu zen eta bere zeregina aholkulariei hasieratik laguntza eta informazioa ematea izan zen.
- Komunikazioa. Batzeko langileek planaren berri jaso zuten. Komunikazio honek bi helburu zituen: plana martxan jarriko zela jakinaraztea eta langileen parte-hartzea bultzatzea.
- Lan-taldeak antolatu. Komunikazioa egin eta gero, hainbat lantalde antolatzeko deialdiak egin ziren. Alde batetik, euskalduntze eta alfabetatzerako deialdiak; eta beste alde batetik, helburuak lantzeko hobetze-taldeak osatzeko deialdiak.
- Jarduera Plana landu. Komunikazioa eta egitura egiten ziren bitartean Euskara Batzordeak garapenean landu beharreko ekintzak, arduradunak eta epeak zehaztu zituen.

Garapena

2000ko urrian hasi ginen Batzeko Euskara Plana garatzen.

HELBURUAK

Helburu nagusia hau da: **euskara enpresaren jardunean integratzea, langileen parte-hartze zuzenarekin.**

Lau ardatz nagusitan banatu ziren helburu zehatzak.

- *Barne-harremanak*: ahozko harremanak, inprimakiak, batzarrak, etab.

- *Kanpo-harremanak*: hornitzaileak, erakunde publikoak, etab.
- *Giza baliabideak*: kontratazio irizpideak, trebakuntza, euskalduntzea, etab.
- *Hizkuntz paisaia*: errotulazioa, etiketak, etab.

EGITURA

- *Euskara Batzordea*. Hasierako pausoetatik planaren koordinazioa eta gidaritza Euskara Batzordeari dagokio. Euskara Batzordeak dauka planaren ikuspegi orokorra eta bere ardura izango da Zuzendaritzan kontuak ematea.
- *Hobetze-taldeak*. Hobetze-taldeak izan dira Euskara Batzordearekin batera Batzeko Euskara Planeko ardatzetariko bat. Lantalde hauetan presentziazko helburuak ez ezik, erabilerakoak ere landu dira.
- *Koordinatzaileak*. Funtziorik garrantzitsuena dute Zuzendaritzaren izenean plana kudeatzea. Batzen bi koordinatzaile izan ditugu aldi berean.
- *Teknikaria*. Elhuyar Aholkularitzaren bitartez teknikaria izan dugu enpresan.

ZAILTASUNAK ETA ERRONKAK

- *Egunerokotasuna*. Produkzio enpresa bateko egunerokotasunak aukera eta denbora gutxi uzten du hizkuntzaren erabilera landu eta egunerokotasun horretan txertatzeko.
- *Bezero atzerritarrak*. Egunerokotasun horri kanpo-bezeroak atzerritarrak izatea gehitzen badiogu, beharizanik ez izatea eta ondorioz lehentasunik ez duela suertatzen da.
- *Lan-mota espezializatua*. Trokelgintzari dagokionez, batez ere, lan espezializatua-rekin aurkitzen gara eta horrek langile espezializatuak eta esperientziadunak behar izatea dakar.

LORPENAK

Barne-harremanetan

- Ahozko erabilera %40koa da.
- *Suspertuz* aldizkariaren 4 ale argitaratzen ditugu urtean.
- Komunikazio Orokorren %90 ele bietan egiten dira.
- 20 inprimakirik erabilienak ele bietan daude.
- Dokumentu sozialak %100 (Estatutuak, barne-araudia, bazkide-kontratua, Kontseilu Errektoreko erabakien ziurtagiriak, etab.) ele bietan daude.
- Batzar Nagusiko deialdia eta dokumentazioa ele bietan egiten dira; eta aurkezpenen %50 euskaraz egiten dira.
- Errektore Kontseilu, Kontseilu Sozial eta Negozio Batzordeetako deialdiak ele bietan egiten dira.
- Errektore Kontseiluko kideen gehiengoa euskalduna izan denean batzarretako ahozko hizkuntza euskara izan da.
- Erabilera-kanpainak:
 - “Euskarak Batzen gaitu” leloa sortu eta erabili dugu.
 - Argazki zaharrak erabilera bultzatzeko mezuekin gune estrategikoetan jarri ditugu.
 - Kartel irudidunak jarri ditugu harrera, Giza Baliabide eta osasun-zerbitzuan.
 - “Nik euskaraz” mahai gainekoak atera eta banatu ditugu.
 - Pin-ak, boligrafoak, gozokiak egin ditugu bisita eta langileentzat.

Kanpo-harremanetan

- Hornitzaileei helarazten zaizkien 3 formatu garrantzitsuenak ele bietan daude.

Giza baliabideetan

- Kontratazio berrietan euskaraz jakitea eskatzen da.

- Internet, *Outlook*, *Excel* eta *Word*-eko ikastaroak euskaraz eskaini ziren (88 ordu, 67 pertsona).
- Euskalduntzeko eta alfabetatzeko aukera izan dute langile guztiek (70 pertsona).
- Euskara Teknikoan trebatu ditugu 25 pertsona.

Irudi korporatibo eta paisaia linguistikoan

- Guneetako identifikazio-errotulu eta seinalizazioetan euskarak lehenasuna du.
- Kafe-makinetako errotuluak euskaraz daude.
- Larrialdi eta ingurumeneko errotulu eta etiketak ele bietan daude.
- Osasun eta segurtasuneko errotulu eta oharrak ele bietan daude.
- *Web* orria euskaraz irakurtzeko moduan dago.

Parte-hartze eta inplikazioan

- Euskara Batzordean 15 kide izan dira guztira. Lau urtean zehar, hilero bi orduko batzarrak egin ditugu.
- Hobetze-taldeetan 90 pertsonak hartu dute parte eta batez beste 400 batzar egin dira. Guztira 30 proiektu landu dituzte.

AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

Hizkuntz erabileran jarrera-aldaketa urte batzuetako prozesuaren ondoren emango da. Prozesu horretan kanpo- eta barne-aldagaiek zerikusi handia izango dute. Oraingoz, esku artean ditugunak kontuan hartuta eta oraindik zer landu badugula ahaztu gabe, orain arte landu ditugun guztiarekin euskararen erabilerarako politika finkatu eta hurrengo urteetarako segimendua antolatu behar ditugu. ■

Euskara enpresaren kudeaketan: kasu honen jatorria

Ezagutza Klusterraren azalpena

Agerikoa da enpresen jardunean euskara erabiltzeak onura asko dakarkiola organizazioari, eta bere ekoizkinen balioa areagotzeaz gain bezeroei eskaintzen dien zerbitzua hobetzeko lagungarri dela.

Ezagutzaren Klusterrak enpresa-munduko aldaketen abangoardia izan nahi du. Unibertsitatearen, enpresaren, aholkularitza-enpresen eta erakunde publikoen arteko zubi izatea saiatu gara. Ezagutzaren Klusterrak erronka hau bere gain hartu du eta euskararen erabilpena erakundeetan sustatzeko ekimen ezberdinak burutu ditu denboran zehar. Besteak beste, 1998tik gaur egun arte kudeaketa aurreratutako enpresei buruzko 22 kasu euskaraz idatzi dira eta 2001ean kudeaketaren arloan euskarazko terminologia-glosarioa egin zen Klusterraren ekimenaz.

Ildo hau jarraituz, irekitako bidea lantzen segitzea erabaki genuen. Ezagutzaren Klusterreko bazkide sarean euskara-planetan ari ziren hainbat enpresaren esperientziak trukatu eta elkarren arteko lorpenen berri izatea hasieran eta aurrerantzean elkarlanean jarduteko asmoz, *Euskara eta Kudeaketarako Foroa* sortzeko premia hauteman zen Klusterretik, eta azkenean martxan jarri zen 2003 urtean.

Foroaren helburu nagusiak euskara kudeaketaren arloan erabiltzeak lanari ematen dion balio erantsia aztertzea eta hori jakinaraztea, kontzeptuak eta egoerak argitzea eta esperientziak trukatzeko, eta ikuspegi eta metodo berriak elkarrekin eta elkarrengandik ikastea izan dira.

Foroko partaideek 2003ko abendutik 2005eko martxora arte egin zuten lan. Guztira, 20 erakunde ezberdinetako 37 pertsonak parte hartu zuten: ELHUYAR eta EZAGUTZAREN KLUSTERRA erakunde dinamizatzaile gisa eta AZTI, BATZ, EITB, EMUN, MONDRAGON ESKOLA POLITEKNIKOA, ESTE, EUSKO JAURLARITZA, GAIKER, IDOM, IKERLAN, IMH, LABEIN, MCC, ROBOTIKER, TEKNIKER, UZEI, VISESA, eta EHU partaide gisa.

Hauetaz gain, beste erakundeak momentu zehatz batzuetan foroarekin bat lanean aritu ziren: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila; Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza; Bizkaiko Foru Aldundia, Kultura; Gipuzkoako Foru Aldundia; EHU-ko Euskara Errektoreordetza; Ekonomisten Euskal Elkargoa; Energiaren Euskal Erakundea (EEE); ABB Niessen; AHIZE; Danobat; Elkargi; Euskarazko Komunikazio Taldea; Kondia; Maier Koop. E.; MCC; Pasaiaiko Portua eta Urola Kostako HITZA.

Hona hemen Foroan parte hartu zuten pertsonen zerrenda: Leire Arrizabalaga eta Igor Lezamiz (dinamizatzaileak), Igor Álvarez, Blanca Arosa, Gorka Aurre, Itziar Azkue, Edurne Bilbao, Rafael Enparantza, Urrate Etxaburu, Alaitz Etxeandia, Ander Etxeberria, Amaia Gabilondo, Nerea Ganboa, Ainhoa Garayar, Nikolas Gardner, Izaskun Ipiñazar, Asier Larrinaga, Agurtzane Loidi, Xabier Manterola, Jesús Matey, Ibon Muguruza, Itziar Navarro, Joxe Ramón Elortza, Ainhoa Saitua, Ibon Serrano, Joxe Mari Ulazia, Mikel Urdangarin, Karmelo Uriarte, Xavier Uriarte, Arantzazu Urtzelai, Arrate Zamakola, Joxean Zapirain, Amaia Zarrabeitia, Eneko Zarraoa, Jon Zuazabeitia, Karmele Zuazubiskar eta Miren Zubizarreta.

Pertsona horien lanaren fruitu gisa kaleratu zen 2005ean *'Euskara enpresaren kudeaketan. Gakoak eta esperientziak'* izeneko txostena. Txosten honetan aztertzen diren gaien artean egungo egoeraren diagnostikoa, euskararen balio erantsia, euskara kudeaketan txertatzeko gakoak, eragileak eta baliabideak azpimarratzekoak dira. Honez gain zortzi esperientzia praktikok osotzen dute informea: Batz S. Coop, EITB, ESTE/EUGT, IMH, Labein Fundazioa, Mondragon Goi-Eskola Politeknikoa, Tekniker eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Agiri honetan horietako bat aurkeztu da; besteak aurkituko dituzu dokumentu honetatik ateratakoan.

Oharra: Txosten osoa eskuratzeko Ezagutzaren Klusterraren Web orrian eska daiteke. <http://clusterconocimiento.com>